

ADI! Guztiz gezurra da sare sozialetan zabaldu den albisteak: MONDRAGON UNIBERTSITATEko Aretxabaletako campusean ez da inolako heriotzarik egon

2016/01/12

Gaur, urtarrilak 12, sare sozialetan zabaldu den **albiste guztiz faltsua da**: ez da inongo heriotzarik egon labankadaz Aretxabaletako campusean. Endredo guztia sortu da Ikus-entzunezko komunikazioa graduko ikasle talde batek egindako gezurrezko albiste batekin. Guztia izan da gaizki ulertutako eta, batez ere, gaizki neurtutako ariketa akademiko baten ondorioa.

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatetik barkamena eskatu nahi diegu ikasle, lankide eta guraso guztiei eta, batez ere, albiste faltsu horretan inplikatuak egon direnei. Barkamenak, bereziki, kaltetuak izan diren Goienako kazetariari zein Goiena Komunikazio Talde osoari, baimen barik haien izena bereganatu eta zabaltzeagatik.